

## ALAI

Izenak izana ere ematen du askotan, eta nire kasuan halaxe da. Beti nago umoretsu, edozerk egiten dit grazia, batez ere, giro onean nagoenean lagunekin. Batzuetan tristura sartzen zait, baina hula-hoopa gerrian jarri eta berehala pasatzen zait! Egia da lotsati xamarra naizela, eta beti behar dut norbait izatea ondoan, zer egin dezakegun proposatuko duena. Bakoitzak bere izaeraren arabera jokutzen du, ezta?

Horri aniztasuna deitzen zaio, eta guztion artean taldea osatzen dugu, bakoitzak bere nortasunarekin. Ei, baina ez pentsatu lotsatia izateagatik ez naizenik inportantea!

Bada, gure taldean Bruna da orkestra zuzendaria, eta gainontzeko bakoitzak instrumentu bat jotzen dugu. Gutako bat falta denean, taldearen soinua ezberdina da.!

